

{ asteari zeharka begira } **Ramon SOLA**

Epaileen matxinada, espainiar arazoaren neurria

Aurtengo urtekarietan Pedro Sanchezen inbestidurak eragindakoa irudikatuko duen argazkia aukeratu behar denean, segur aski Ferraz kalean gauero eginiko elkarretaratze tragikomikoetako batena hartuko dute editoreek. Baina bada irudi sakonagoa eta kezagarriagoa, nire ustez, hainbeste zabaldurik ez den arren. Espainiatik kanpo edonor zur eta lur uzteko modukoak dira epaileek eta fiskalek deitutako kontzentrazioenak. Togadunak kalean protestaka, bai, zerengatik, eta botere banaketaren alde! Gezuraren aroan izanagatik ere, sinesgaitzak egiten dira irudia eta aldarria; izan ere, legeak proposatu eta onartzea (Amnistiarena, kasu honetan) beste bi botereri dagozkie, Gobernuari eta Legebiltzarrari, ez Botere Judizialari. Botere banaketaren kontrako erasorik izatekotan, beraz, epaile eta fiskal hauena behar luke, edonork ulertuko duenez.

Halere, hor dira, herritarren erabakiaren gainetik ez ezik, legearen gainetik ere beren nagusitasuna bertikotzen nahian. Jarrera korporatibistak argudiatu dituzte zenbaitek, erreakzio honi larritasuna kendu nahian, baina sakonagoa da arazoa: esku-hartze politikoa espainiar Botere Judizialaren etengabeko joera da, muinean daraman ezaugarria. Katalunian agertu dute, Euskal Herrian zer esanik ez, eta Espainian ere bai tarteka. Estatuaren barruko Estatu gisa definitua izan da Guardia Zibila maiz, eta hala da, baina epaileen jarduna gutxiagotan jarri da ezbaian, eta botere handiagoa da hauena.

Epaile bakar batek, boteregune zehatz batean kokaturik eta militantzia politikoan ondo trebaturik, Gobernuako presidentek baino aginte maila handiagoa bil dezake. Jose Luis Rodríguez Zapaterok azal lezake noizbait, epaileen erabakiek zenbateraino pozoitu zuten Euskal Herria 2005 eta 2007 urtearen arteko ne-

goizazio prozesua, euskal preso eta ordezkari politikoaren kontra eginez, edo nola ustelaz zuten Kataluniako egoera 2010etik aurrera, Estatutaren kontrako kolpearekin. Orain ere, baten batek Sanchezek itxitako akordioak sabotatzeko jardungo duela (edo tropelean) erraz aurreikus daiteke, bera ere auzitegiatar eramateko ez bada. Nondik egin zezakeen gehiago Fernando Grande-Marlaskak: Auzitegi Nazionalako areto batetik edo Barne Ministerioako egoitzatik?

Francoren osteko haustura ezari egotzi zaio askotan espainiar epaile askoren jokabidea. Eta bai, egia da Auzitegi Nazionala Tribunal de Orden Público zenaren ondorengoa dela. Baina diktadorea hil zenetik ia mende erdia igarota, eskasa da azalpen hori. Toga jantzita kalera atera diren horiek guztiak nerabeak izango ziren, asko jota, erreformari bide eman zitzaionean. Hurrengo bost hamarkadotan landu dute beren

Epaile bakar batek espainiar presidente batek baino aginte maila handiagoa bil dezake (lehendakari batek baino gehiago, zer esanik ez); Zapaterok azal lezake hori

oraingo jaun eta jabetza, demagun euskararen aldeko urratsak zapuzteko edo Europako Entzutegiaren erabakiari entzungor eginez Xabier Atristaini kartzela-zigorra berresteko.

Demokrazia aldetik Espainiak dituen gabezia ikaragarrien ikur baino gehiago da Botere Judizial hau. Neurri handi batean PPK eta PSOEk, biek, beren interesen alde erabili ohi dutelako, politikagintzan esku-hartzeko gogo hori elikatuz. Euskal Herrian ere gortu direla antzematen da Iruñean zein Bilbon hartutako erabakietan, azken hau Iñaki Subijana Auzitegi Nagusiko presidentearen iritzia irakurka. •